


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

# **GRADU AMAIERAKO LANA**

## **Euskara-Gaztelania literatura- itzulpenaren bilakaera XXI. mendean**

Ainhoa Urruzola Puignau

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

2017-2018 ikasturtea

Tutorea: Koldo Biguri Otxoa de Eribe

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila (HEIS)

## **Aurkibidea**

<b>Laburpena</b> .....	1
<b>Sarrera</b> .....	3
<b>Datu-basea</b> .....	5
<b>Datuen azterketa</b> .....	10
Argitalpenak.....	10
Itzultzaile-motak .....	13
Argitaletxeak .....	19
Testu mota.....	23
<b>Ondorioak</b> .....	29
<b>Eranskinak</b> .....	33
I. eranskina: haur eta gazte narratiba.....	33
II. eranskina: helduentzako narratiba .....	42
<b>Bibliografia</b> .....	52

## **Grafikoen eta taulen aurkibidea**

1. grafikoa: argitalpenen bilakaera urtez urte .....	10
2. taula: 2007ko diru-laguntzen ebazpena .....	11
3. grafikoa: gehien itzultitako egileak XXI. mendean .....	12
4. grafikoa: itzultzaile-moten bilakaera urtez urte .....	13
5. grafikoa: XXI. mendeko itzultzaile alografo oparoenak.....	15
6. grafikoa: itzultzaile-moten banaketa.....	16
7. grafikoa: XXI. mendeko autoitzultzaile oparoenak .....	16
8. grafikoa: argitaletxeen bilakaera urtez urte.....	20
9. grafikoa: barne-produkzioa .....	20
10. grafikoa: kanpo-produkzioa .....	20

11. grafikoa: argitaletxeen bilakaera.....	22
12. grafikoa: testu moten bilakaera urtez urte.....	24
13. grafikoa: helduentzako narratibaren bilakaera argitaletxeen arabera .....	25
14. grafikoa: haur eta gazte narratibaren bilakaera argitaletxeen arabera .....	26

## **Laburpena**

Lan honen helburua XXI. mendeko Euskara-Gaztelania literatura-itzulpenaren bilakaera aztertzea da. Helburu hori lortzeko datu-base bat osatu dugu, eta argitalpen orokorrak aztertzeaz gain, funtsezkoa iruditu zaigu itzulpen argitaratuen ezaugarri batzuen bilakaera ikertzea: itzultzaile-motak, argitaletxeak eta testu motak.

Horretarako, aurkezpen orokor baten ondoren, lanari datu-basearen nondik norakoekin emango diogu hasiera. Hasteko, datu-base bat zertan datzan azalduko dugu, eta jarraian, datuen bilduma osatzeko finkatu ditugun irizpideak azalduko ditugu:

Lehenik, bilaketa XXI. mendera eta narratibara mugatu dugu, eta datu-basea osatuko duten argitalpenak lehen edizioak izango dira.

Bigarrenik, itzultzaile-motak hiru motatan banatu ditugu (autoitzultzailea, itzultzaile alografoa eta kolaborazioa), eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako argitaletxeak multzo batean sartu ditugu eta Estatuko argitaletxeak beste batean. Argitaletxeen bi multzo hauen literatura-sistemak desberdinak dira, eta banaketa honen bidez, erabilitako jokamoldeak ikusi nahi izan ditugu. Hari beretik, bilaketan Hego Ameriketako zenbait argitalpen jaso ditugunez, horiek beste multzo batean sartu ditugu.

Honekin batera, testu motak haur eta gazte narratiban eta helduentzako narratiban banatu ditugu. Horrez gain, bildu ditugun beste datuak aipatuko ditugu, eta atal honekin amaitzeko, datu-basea osatzeko erabili ditugun iturriak azaldu eta bildumarako datuak betetzerako orduan izan ditugun arazoak aztertuko ditugu.

Ondoren, datu-basearen informazioa aztertzeari ekingo diogu. Azterketa lau arlotan banatu dugu: lehenengoa, argitalpenei dagokiena izango da; jarraian, itzultzaile-motak izango ditugu; ondoren, argitaletxeak; eta azkenik, testu motak. Arlo bakoitzeko datuei euskarri bisual bat emateko asmoarekin zenbait grafiko erantsi ditugu, eta hauen bidez, emaitzak zehaztasun handiagoarekin aztertuko ditugu. Ikerketa euskarazko narratibaren gaztelaniarako itzulpenen bilakaeran oinarritu dugu, eta bilakaerarekin lotura duten beste zenbait ezaugarri aztertu ditugu, esaterako, mende honetako euskal idazle itzulienak, itzultzaile alografo oparoenak eta hauek duten harremana argitaletxe eta idazleekin, kolaborazioak eta autoitzulpenak duten harreman estua eta autoitzulpenaren garrantziaren zergatia.

Azterketa bukatuta, atera ditugun ondorioak aipatuko ditugu. Zenbait ondorio orokorrak dira, eta gainerakoak arlo bakoitzean jaso ditugunak. Gainera, datu-base eta ikerketa honen bidez, XXI. mendeko bilakaeraren azterketari eman diogu hasiera, hau da, ikerketa gure mendeko lehen hamazazpi urteetan oinarritu da. Hala ere, aztergai dugun mende osoko bilakaera zein izan den jakin ahal izateko, hurrengo urteetako argitalpenak jaso egin beharko dira eta horrek argitalpenen jarraipen sakon bat behar izango du.

Lana bukatu aurretik, datu-baseko argitalpenak eranskinetan ipini ditugu. Argitalpenak haur eta gazte narratiban eta helduentzako narratiban banatuak daude, eta sailkapena urtez urtekoa eta alfabetoaren arabera da. Lanaren amaieran, bibliografiaren atalean, erabili ditugun ikerketa eta materialak bildu ditugu.

## Sarrera

Euskal literaturak zenbait oztupo izan ditu historian zehar, izan ere, Francoren erregimenaren ondorioz, literaturak ezin izan zuen aurrera egin (Jaka, 2005). Garai horren amaieraren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateko zati batek euskararen koofizialtasuna lortu zuen, eta horri esker, XX. mendean euskal literaturak hazkunde garrantzitsua izan zuen, eta igoera hori euskal itzulpengintzari lotuta dago (Jaka, 2005). Euskal produkzioaren igoera horrekin, hainbat euskal idazlek ospea lortu eta liburu batzuk beste hizkuntza batzuetara itzultzea lortu zuten, gehienbat gaztelaniara. Horietako liburu gehienak Bernardo Atxagaren obrak izan ziren, *Obabakoak* eta *Memorias de una vaca*, adibidez, baina Xabier Galarreta, Juan Kruz Igerabide, Mariasun Landa edota Joseba Sarrionandiaren beste hainbat liburu ere gaztelaniara itzuli ziren.

Azken urte hauetan, XXI. mendeko azken bi hamarraldietan, euskal literaturak nabarmen egin du gora, alde batetik, euskal produkzioa ugariagoa delako, eta bestetik, hainbat jatorrizko hizkuntzetatik euskarara itzultzen delako, ingelesetik eta gaztelaniatik batez ere (Jaka, 2005). Euskal literatura eta euskararako literaturaren itzulpena zenbait aldiz ikertu da azken urteotan. Ikertzaileen artean Joan Mari Torrealdai nabari da, izan ere, *Jakin* aldizkarian urte askotako liburugintzari buruzko azterketak jaso ditu, eta 2007an 30 urteetako azterketa horiek liburu batean jaso zituen, bertan euskaraz sortutako eta euskarara ekarritako literatura aurki dezakegu (Torrealdai, 2007). Beste adibide bat Manu Lopez Gaseni da, honek euskaraz sortutako eta euskaratutako haur eta gazte literaturari buruzko zenbait azterketa egin ditu (Lopez Gaseni, 2000, 2005), eta *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan* izeneko liburu bat idatzi du ere (2005).

Hala ere, euskaratik itzultitako literaturari buruzko ikerketak oso urriak dira, nahiz eta euskaratik itzultzea indarra hartu duen azken urteotan. Elizabete Manterolaren tesia, adibidez, euskal literaturaren beste hizkuntzetarako itzulpenari buruzkoa da (Manterola, 2012). Euskaratik hainbat hizkuntzatarara itzultzen da, baina Espainia da euskaratiko lan gehien itzuli diren herrialdea, eta beraz, itzulpen gehienak gaztelaniara egin dira (Jaka, 2005). Horren ondorioz, XXI. mendean zehar gaztelaniara itzultitako euskal narratibaren bilakaera du aztergai ikerketa honek, konbinazio hau ez baita hainbeste ikertu. Honen bidez, euskal literaturaren gaztelaniazko itzulpenek Estatu mailan eta Euskal Herrian

duen harrera aztertuko dugu. Horrez gain, XXI. mendean argitalpen mota honek izan duen bilakaera ikertuko dugu, eta lehen hamarraldiko bilakaera bigarrenarekin alderatuko dugu.

Horretarako, datu-base bat osatu dugu, bertan, askotariko datuak jaso ditugu, hala nola, jatorrizkoaren eta itzulpenaren izenburua, egilea, itzultzailea, argitaratze urtea, argitaratzailea, argitaratze lekua eta argitalpen mota. Jarraian azalduko dugu zehatzago nola sortu dugun datu-basea.

Datu-base honen bitartez, urtez urteko bilakaera eta beste ezaugarri batzuk aztertuko ditugu. Hasteko, argitalpenen bilakaera ikusiko dugu, eta ondoren, euskaraz sortutako gaztelaniara itzultitako narratiban zein itzultzaile-motak hartzen duen parte eta zein nolako bilakaera izan duen bakoitzak aztertuko dugu. Gainera, itzultzaile-mota bakoitza azaldu eta hauen ezaugarri batzuk eta haien arteko harremanak aztertuko ditugu. Horren ondoren, argitaletxeen bilakaera ikusiko dugu, hala nola, argitalpenen bilakaera XXI. mendean zehar, konbinazio honetan argitaratzen dituzten argitaletxe gehienak nongoak diren eta hauen ezaugarriak. Azkenik, testu-moten bilakaera eta argitaletxeekin duten lotura ikusiko dugu. Aipatu ditugun lau ezaugarri hauek azpiataletan banatuak egon arren, bakoitzaren bilakaera besteari lotuta dago.

## **Datu-basea**

Hasi aurretik, datu-base bat zer den azalduko dugu. Datu-base bat antolatuta dauden datuen bilduma bat da. Batutako datu horiek elkar erlazionatzen dira eta datu-baseak informazio horretarako sarbide azkarra ziurtatzen du. Informazioa eremu desberdinetan sailkatuta dago, eta datu bilduma honek datuak kudeatzeko erraztasuna eskaintzen du programa informatikoei esker (Trentin, 1992). Datu-baseak oso ugariak dira gaur egun, liburutegietan, adibidez, argitalpenen katalogoetarako erabiltzen dituzte, eta horren bidez, nahi den informazioa azkar eta erraz aurki daiteke. Horren ondorioz, datu-base bat osatzea erabaki dugu, informazioa bilduma batean gordetzeko aukera izateko, eta horri esker, informazioa nahi dugunaren arabera antolatzeko eta behar dugun informazioaren sarbide azkarra ziurtatzeko. Jasotako datuak lan amaierako eranskinen aurkeztuko ditugu.

Datu-basearen prozesuari ekiteko, hartutako lehen erabakiak azalduko ditugu, izan ere, bilduma osatu aurretik, zenbait irizpide finkatu ditugu emaitza zehatzagoak lortzarren. Hasteko, testu motari muga batzuk ezarri dizkiogu. Ideia orokorra euskara-gaztelania literatura-itzulpenak aztertzea izan zen, baina literaturak mota askotariko generoak dituenez gero, eta ondorioz, era askotako emaitzak lortuko genituzenez gero, gure bilaketa narratibara murriztu egin dugu. Honela, datu espezifikoak bilatu ditugu eta emaitza zehatzagoak lortzeko aukera izan dugu. Narratibaren barnean eleberriak, kontakizun laburrak, ipuinak, nobela grafikoak eta bidaia kronikak hartu ditugu kontuan. Horrez gain, datuen azterketa zehatzagoa egiteko asmoarekin, testu motak bi multzotan banatu ditugu. Multzo horiek haur eta gazte narratiba eta helduentzako narratiba dira, eta liburu bakoitza sailkatzeko orduan, ondoren aipatuko ditudan datu-baseetan agertzen zen informazioan oinarritu gara.

Irizpideei jarraituz, ikerketak XXI. mendean zehar argitaratu diren euskarazko narratibaren gaztelaniarako itzulpenak dituzenez aztergai, bilaketa 2000. urtetik 2017. urteko abendura gauzatu dugu, eta kontuan hartutako argitalpenak lehen edizioak soilik izan dira. Horrekin batera, datu-basean XXI. mendean bakarrik argitaratu diren izenburuak agertzea ziurtatu dugu, askotan XX. mendean itzultako liburuen berrargitalpen asko gauzatu baitira azken hamazazpi urteotan.



Ondoren, itzultzaileak hiru motatan sailkatu ditugu, eta horretarako, itzulpengintzako zenbait ikerketetan aipatzen diren motetan oinarrituko gara. Lehenengoa itzultzaile alografoa dugu (Manterola, 2012), hau da, liburua egilea ez den pertsona batek itzultzen du. Hurrengo mota autoitzulpengintza dugu, itzulpena jatorrizko testuaren egileak berak egiten du (Manterola, 2012). Azkenik, kolaborazioa. Kolaborazioa bi kasu desberdinetan gerta daiteke, itzultzaile eta egileak elkarlanean itzultzen dutenean edo pertsona bat baino gehiagok parte hartzen duenean itzulpenean (Manterola, 2012). Izan ere, itzulpen prozesu batean editore eta zuzentzaileek, besteak beste, har dezakete parte.

Datu-base honetako zenbait argitalpenen datuek itzultzaile bat baino gehiagoren izenak eskaintzen dizkigu, baina horrek ez du esan nahi pertsona oro itzultzaile denik. Tarrantalo argitaletzeko zenbait argitalpenetan, adibidez, egilearen eta beste batzuen izena ageri dira itzultzailearen datuetan, baina guztiak ez dira itzultzaile. Kasu hau hobeto azaltzeko, Joan Mari Irigoienek *Consummatum est* liburua erabiliko dugu adibide gisa. Obra egileak berak itzuli zuen; ondoren, Jorge Aranguren idazleak itzulpena irakurri eta zuzendu egin zuen; eta azkenik, Maite Puignauk azken zuzenketa egiteko, azken bertsioa irakurri eta jatorrizkoarekin alderatu zuen. Beraz, adibide honekin ikus dezakegu ez direla itzultzaileak itzulpen prozesuan parte hartzen duten bakarrak.

Ezarritako irizpideekin bukatzeko, jatorrizkoaren eta itzulpenaren izenburua, itzultzailea, argitaletxea eta argitaratze-lekua hartu ditugu kontuan datu-baserako. Argitaratze-lekuaren arabera, argitaletxeak bi multzo nagusitan banatu ditugu, lehenengoa Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako argitaletxeek osatzen dute eta bigarrena Estatuko gainerako argitaletxeek. Era berean, bilaketan Hego Ameriketako zenbait argitalpen bildu ditugu, eta hauek beste multzo batean sartu ditugu. Sailkapen honen bidez euskara-gaztelania konbinazioan zein argitaletxe motak argitaratzen duen gehien ikusteko gai izango gara.

Ondoren, datu-basea osatu dugu. Horretarako, Excel programa erabili dugu eta zenbait datu-base eta iturri izan dira oinarritzekoak datuak osatzeko. Lehenik, bilaketa orokor baterako, UNESCOren *Index Translationum*<sup>1</sup> itzulpenen datu-basea eta Euskal

---

<sup>1</sup> *Index Translationum* datu-basea: <http://www.unesco.org/xtrans/>

Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) sortutako *Nor da Nor*<sup>2</sup> datu-baseak erabili ditugu.

*Index Translationum* datu-basean munduko eskualde askotako hizkuntzak aurki daitezke, eta konbinazio askotan egin daitezke bilaketak. Emaiza bakoitzak egilea, jatorrizkoaren eta itzulpenaren izenburua, itzultzailea, argitaratze-urtea, argitaletxea eta argitaratze-lekua eskaintzen du. Hala ere, euskara-gaztelania konbinazioaren eta finkatutako urteetako argitalpenen emaitza nahiko murriztua da: literatura arloan 225 emaitza agertzen dira, baina maiz, nahiz eta bilaketa euskara gaztelania konbinazioan egin, jatorrizko eta xede hizkuntzak ez dira ez euskara, ez gaztelania. Beste batzuetan, argitaletxea, itzultzailea, jatorrizko izenburua edo egilea ez dira agertzen edota informazioa okerra da.

*Nor da Nor* datu-basea, aldiz, euskal-itzulpengintzaren datu-basea da, eta gaur egun Bego Montoriok koordinatzen du. Informazioa *Index Translationum* datu-basearen antzekoa da, baina hau era argiagoan ikus daiteke eta informazioa ugariagoa da: literatura arloan 400 emaitza inguru daude, baina *Index Translationum* datu-basearekin gertatzen den bezala, emaitza horietatik narratiba bakarrik hautatzen dugunean argitalpen kopurua txikiagoa da. Ez da informazio asko falta, baina hala gertatzen denean, gehienetan itzultzaileari dagokien datuei buruzkoa da. Horrez gain, maiz agertzen da argitalpen bera bi datu-base hauetan, baina informazioa begiratzean, datuak kontraesankorrak dira, esaterako, argitaratze urteak, itzulpenaren izenburuak edota itzultzailearen izenak.

Horren ondorioz, bi datu-baseak alderatu ondoren, liburuetaiko datu asko hutsik zeuden, itzultzailearena batez ere, eta beste batzuk desberdinak ziren. Informazio hori bete ahal izateko, beste iturri batzuk erabili ditugu. Horien artean, Espainiako ISBN datu-basea<sup>3</sup>, EHUKo Elizabete Manterolak sortutako Euskal Literatura Itzuliaren Katalogoa (ELI)<sup>4</sup>, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (EIPS)<sup>5</sup> katalogoa, Sancho El Sabio Fundazioaren<sup>6</sup> liburutegiko katalogoa, Espainiako Liburutegi Nazionaleko katalogoa

---

<sup>2</sup> *Nor da nor* datu-basea: <http://nordanor.eus/>

<sup>3</sup> Base de datos de libros editados en España:

[http://www.mcu.es/webISBN/tituloSimpleFilter.do?cache=init&prev\\_layout=busquedaisbn&layout=busquedaisbn&language=es](http://www.mcu.es/webISBN/tituloSimpleFilter.do?cache=init&prev_layout=busquedaisbn&layout=busquedaisbn&language=es)

<sup>4</sup> Euskal Literatura Itzuliaren Katalogoa <http://ehu.eus/ehg/eli/>

<sup>5</sup> Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea [https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop/O9242/IDb45a231d?ACC=101](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop/O9242/IDb45a231d?ACC=101)

<sup>6</sup> Sancho el Sabio Fundazioa <http://www.sanchoelsabio.eus/eu/katalogoak/>

(BNE)<sup>7</sup>, eta Alberdania argitaletxearen itzultzaileen<sup>8</sup> datu-basea erabili ditugu. Iturri berriei esker, batez ere ELIri, Espainiako ISBN datu-baseari eta EIPSKo katalogoari esker, liburu askotako itzultzailea zein den jakiteko edota bat ez zetorren informazioa bateratzeko aukera izan dugu.

Hala eta guztiz ere, iturri hauek guztiak alderatu arren, ez da nahikoa izan datu-basea osorik betetzeko. Itzultzaileen informazioa izan da zailena aurkitzen, askotan itzultzailearen izena ez zelako ageri edo enpresa edo talde baten izena ageri zelako. Beste zenbait kasutan, argitaratze urtea eta argitaletxea aurkitzeko zailtasunak izan ditugu ere. Izan ere, informazio gutxi eskaintzen zuten liburuak beste zenbait datu-baseetan begiratzean, *Nor da Nor* eta Espainiako ISBN datu-basean esaterako, liburuak batzuetan ez ziren existitzen. Horregatik, azken saiakera argitalpenak gertuko liburutegietan bilatzea izan da. Honen bidez, falta ziren liburuetako datuak lortu ditugu, eta gehienetan, itzultzailearen datuak biltzeko aukera izan dugu. Beste batzuetan, aldiz, ezin izan dugu daturik lortu. Itzultzailearen daturik ez duten liburuak hiru izan dira guztira: Aitor Aranaren *Mi querido Oscar: una biografía novelada de Oscar Wilde* eta *Mensajeras del cielo* eta Txilikuren *Voy a tener una hermanita*. Kontuan izan behar dugu itzultzaileen datuak agertzen ez ziren obra gehienak, eta beraz, liburuan bertan begiratu behar izan ditugunak, autoitzulpenak izan direla, eta are gehiago, horietako liburu asko Aitor Aranaren, Juan Kruz Igerabideren eta Fernando Morilloren autoitzulpenak izan direla.

Bilaketa honen beste arazoetako bat zenbait liburu datu-baseetan galdu egiten direla edo agertzen ez direla da. Erabilitako iturrietan, zenbait filtro finkatzen dira bilaketarako, eta argitalpenek informazio okerra badute edo informaziorik ez dagoenean, itzulpen batzuk datu-base horren barrenean galdu egiten dira. Horren ondorioz, Espainiako ISBN datu-basean eta EIPSKo katalogoan egile baten liburu jakin baten informazioa bilatzerako orduan, jasota ez zeuden beste liburu batzuk aurkitu ditugu. Horietako batzuk Aranaren *Fuego por amor* edo *Claudia y el secreto del río* eta Morilloren *Las alas de Leonardo* izan dira.

Jasotako informazioa testu motaren arabera sailkatu dugu, eta ondorioz, bi taldetan aurki dezakegu. Lehenik, haur eta gazte narratibari dagokiona, eta bigarrenik,

---

<sup>7</sup> Espainiako Liburu Nazionala <http://catalogo.bne.es/uhtbin/webcat>

<sup>8</sup> <http://www.alberdania.net/itzultzaileak.php?lng=eu>

helduentzako narratibari dagokiona. Ondoren, bi eratan ordenatu dugu datu-basea, urteka eta egileka, azken hauek alfabetoaren arabera. Azkenik, gainerako informazioa dugu, itzultzaileak, aipaturiko hiru motatan sailkatuak, jatorrizkoaren eta itzulpenaren izenburuak, argitaletxea eta argitaratze-lekua.


Idazlan honen bukaerako bi eranskinetan ikus daiteke datu-basea.

## Datuen azterketa

Atal honetan datu-basean jaso ditugun datuen azterketari emango diogu hasiera. Azterketa lau arlotan dago banatuta: hasteko, argitalpenen bilakaera orokorra izango dugu aztergai, jarraian, itzultzaile-mota desberdinena, ondoren, argitaletxeena, eta azkenik, testu moten bilakaera. Kontuan izan behar da XXI. mendeko bilakaeraren ikerketa hau mende honetako lehen urteetan oinarritu dela, eta ikerketa honi hasiera besterik ez diogula eman, beraz, mendeko behin betiko bilakaera aztertu ahal izateko, hurrengo urteetako argitalpenen jarraipena egin beharko dela azpimarratu nahi dugu.

## Argitalpenak

Esan bezala, atal honetan argitalpen orokorren urtez urteko bilakaera aztertuko dugu. Guztira, 309 itzulpen jaso ditugu datu-basean, eta jarraian ikusiko dugun bilakaera jasan dute:



### 1. grafikoa: argitalpenen bilakaera urtez urte

Orokorrean, urte batzuetan gorabeherak izan arren, argitalpenen kopurua nahiko egonkorra izan da mendean zehar. Mendeko lehen hamarraldian, 2000. urtetik 2010. urtera, argitalpen kopuruak igoera bat izan du, nahiz eta urte jakin batzuetan kopuruak behera egin. Nabarmentzekoa da 2010ean 28 izenburu argitaratu zirela, eta kopuru hori 17 urte hauetako handiena izan dela. Era berean, 2010etik aurrera, argitalpenek gainbehera bat izan dute, izan ere, 2010. urtearekin alderatuta, hurrengo urteen argitalpenek % 50 inguruko beheraldia izan dute. Gainera, urte horietako argitalpenak berdintsuak izan dira, eta ez dira lehen hamarraldian bezain oparoak izan. Itzulpen

kopuru handienak 2003, 2005, 2007 eta 2010 urteetan argitaratu ziren, eta txikienak, aldiz, 2014, 2015 eta 2016 urteetan. 2017an igoera apal bat egon dela ikus daiteke.

Bilakaera honen faktoreak askotarikoak izan daitezke. Horietako bat, adibidez, Eusko Jaurlaritzak euskal testuak itzultzeko eman izan dituen diru-laguntzak izan daiteke. Diru-laguntzak 2011. urtera arte eman ziren, eta geroztik aurrera, euskal testuak itzultzeko diru-laguntzak Etxepare Institutuak ematen ditu. Gainera, laguntza horiek ez dira zehazki liburuak gaztelaniara itzultzeko, baina kopuru handiena gaztelaniara itzultzeko da. 2006tik 2011ra diru-laguntza kopurua guztira 100.000 euro ingurukoa zen, ondoren, diru-laguntzak Etxepare Institutuak ematen hastean, 40.000 ingurura jaitsi zen, beraz, argitalpen kopuruan nolabaiteko eragina izan duela pentsa dezakegu. Eragin hori xehetasun gehiagorekin ikus ahal izateko, 2007ko ebazpenaren datuak aztertuko ditugu. Taulan narratibara zuzendutako diru-laguntzak ikusiko ditugu:

<b>Argitaletxea</b>	<b>Liburua</b>	<b>Diru-laguntza</b>	<b>Argitalpen urtea</b>
Alberdania	Kutsidazu bidea Ixabel	1.050,00	2007
Alberdania	Ero hiria	2.400,00	2008
Alberdania	Lasto sua.	1.700,00	2007
Alberdania	Joan zaretenean	2.300,00	2007
Alberdania	Hauts bihurtu zineten	4.100,00	2007
Ttarttalo	Kilkerren hotsak	3.055,00	2007
Tttarttalo	Handik gutxira gaur	2.210,00	2007
Atenea	Etorriko haiz nirekin	3.420,00	2010
Txalaparta	Ecce homo	2.941,96	2010


## **2. taula: 2007ko diru-laguntzen ebazpena**

Taulan agertzen diren liburuetak sei ebazpenaren urte berean argitaratu zituzten, eta beste hiru beranduago.

Beste faktore bat zenbait argitaletzek argitalpenak egiteari utzi diotela izan daiteke, Alberdania argitaletxeak, adibidez, 2012an argitalpenak egiteari utzi zion aldi baterako, eta horrek eragina izan du argitalpenen bilakaeran

Egileei dagokienez, ehun idazle inguru jaso ditugu datu-basean, eta horietako batzuei bere idazlanen itzulpen bakarra edo bi argitaratu dizkiete. Beste kasu batzuetan, aldiz,

idazle batzuek nagusitasuna dutela nabari daiteke aztergai dugun konbinazioan eta mendean, hau da, zenbait idazleren lanak besteenak baino gehiago itzuli dira. Jarraian ikus daitezke gehien itzultako egileak:



3. grafikoa: gehien itzultako egileak XXI. mendean

Grafikoan gehien itzuliak izan diren egileak agertzen dira eta barren koloreek testu motak adierazten dizkigute.


Orokorrean, Juan Kruz Igerabide eta Patxi Zubizarreta dira gehien itzuliak izan diren egileak. 26 titulu argitaratu dizkiete bakoitzari, eta horietako gehienak haur eta gazte narratiba dira. Ondoren, Jon Arretxe dugu, bere kasuan, itzultako argitalpen gehienak helduentzako narratibaren arlokoak dira, eta azkenik, Mariasun Landa dugu, eta bere kasuan ere, haur eta gazte narratiba motako testuak itzuli zaizkio gehienbat.

Susana Pinto, Aingeru Epaltza eta Karlos Santistebanen itzulpenak testu mota bakarrekoak izan dira, Pinto eta Santistebanen itzulpenak haur eta gazte narratibakoak, eta Aingeru Epaltzarenak helduentzako narratibakoak.

Beste idazleen itzulpenak bi motatakoak dira, baina gehienetan testu mota bat bestea baino ugariagoa da.

## Itzultzaile-motak

Itzultzaile-motaren arabera, honako urtez urteko bilakaera ikus dezakegu:



#### 4. grafikoa: itzultzaile-moten bilakaera urtez urte


Hasi aurretik, azaldu beharra dago zer den «bestelakoa» deituriko itzultzaile-mota. Aurrerago aipatu bezala, liburu batzuetan itzultzailearen izena ageri beharrean, enpresa baten izena ageri da. Hiru aldiz gertatzen da, behin 2005ean eta bitan 2006an. Hiru kasu hauek argitaletxe berean gertatzen dira, Valentziako Algar argitaletxean hain zuzen ere, eta itzultzailearen datuetan Edicions Bromera eta Rosetta testu zerbitzuak ditugu. Beraz, ezin dugu zehazki jakin nork itzuli duen liburua eta ondorioz, zein itzultzaile-mota den. Liburu hauen egileak, Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide eta Bernardo Atxaga dira.

Beste hiru motak aztertzen baditugu, itzultzaile alografoak eta autoitzulpenak gorabehera handiak dituzte urtez urteko bilakaeran, baina argi dago itzulpen-mota nagusienak direla konbinazio honetan. Ikuspuntu orokor batean, argitalpenen itzulpen gehienak autoitzultzaileek eginak dira 2000, 2002, 2007, 2011 eta 2016 urteetan izan ezik. Kolaborazioari dagokionez, gutxitan gertatzen da mendean zehar. Kopuru handienak hiru kasu dauzka urte berean, 2008. urtean zehazki, eta beste urteetan behin edo bitan gertatzen da. Tarttalo argitaletxean zenbait kolaborazio egin dira, baina horietako gehienak egilearen eta beste batzuen arteko kolaborazioa dira. Alfaguarak beste zenbait kolaborazio izan ditu, eta horiek denak Bernardo Atxagaren eta Asun Garikanoren kolaborazioa dira.



Horren harira, kolaborazioak eta autoitzulpenak harreman estua dutela atzematen da, aipatu bezala, liburuaren egileak maiz parte hartzen baitu kolaborazio horretan. Kasu gutxitan gertatzen da kolaborazioko itzultzaileen artean egilea ez egotea. Kolaborazio baten adibide interesgarri bat Patxi Zubizarretaren eta Juan Kruz Igerabideren liburuan ematen da, *Siete noches con Paula* obran. Bi idazleek idatzi dute jatorrizko testua, *Paularen zazpi gauak*, eta biek itzuli dute gaztelaniara, beraz, kolaborazio bat da. Hala ere, autoitzulpenari oso lotuta dagoela esan dezakegu. Beste adibide bat Atxagaren liburuak dira, datu-base honetan agertzen diren Atxagaren itzulpen gehienak honen eta Asun Garikanoren kolaborazioa izan baitira. Salbuespena *Borrokaria = El luchador = The fighter* eta *La gente de mi pueblo*, itzulpenak dira. Lehenengoan, Amaia Gabantxoren izena ageri da honek ingeleserako itzulpena egin baitzuen, eta azkenekoaren itzultzailea Rosetta testu zerbitzuak da. Horrez gain, esan bezala, batzuetan itzultzailearen datuetan, editore edo zuzentzaileen eta egilearen izenak datoz, eta maiz ez dakigu zer nolako zeregina izan duen bakoitzak, baina argi dago pertsona orok hartu duela parte itzulpen prozesuan.

Itzultzaile alografoek garrantzi handia dute euskara-gaztelania konbinazioan, nahiz eta urte gehienetan autoitzulpenaren azpitik egon. Izan ere, datu-basean 42 itzultzaile alografo jaso ditugu. Horietako batzuek behin edo bitan soilik itzuli dute libururen bat, baina beste askok liburu ugariko esperientzia dute. Hurrengo grafikoan itzultzaile alografo oparoenak aztertuko ditugu:




5. grafikoa: XXI. mendeko itzultzaile alografo oparoenak

Grafikoak erakusten duenez, honako bederatzi itzultzaile hauek izan dira oparoenak XXI. mendean zehar. Iruneko Alberdania argitaletxeko sortzailea eta editorea den Jorge Giménez Bech dugu lehenengoa, eta ondoren Gerardo Markuleta eta Bego Montorio. Gainera, hauetako batzuk argitaletxe edo egile jakin batzuetara lotuta daude. Jorge Giménez Bechek, adibidez, egin dituen itzulpen gehienak Anjel Lertxundi egilearen liburuak dira, eta itzulpen horietatik hamaika Alberdania argitaletxean plazaratu dira. Cristina Fernándezen kasuan, zortzi itzulpenetatik zazpi Jon Arretxeren liburuak izan dira, eta denak Donostiako Erein argitaletxean argitaratu dira. Itziar Ortuondoren itzulpenak Patxi Zubizarretaren obrak izan dira denak, Xabier Kerexetarenak, aldiz, Susana Pintoren *Basajaun* bildumako liburuak dira denak, eta argitalpen guztiak Iruneko Banaka media argitaletxean plazaratu dira. Azkenik, Joxerra Garziaren lau itzulpenak Antton Kazabonen sorkuntza lanak izan dira, eta Bilboko Gero-Mensajero argitaletxean argitaratu dira.


Autoitzulpenaren bilakaeraren kasuan, harreman estua du argitalpen orokorren bilakaerarekin; hau da, antzeko gorabeherak izan dituzte mendean zehar. Hurrengo grafikoak erakusten duenez, autoitzulpenak itzulpenen % 52 osatzen du, hau da, mende

honetan zehar itzuli diren 309 argitalpenen erdia baino gehiago egileek autoitzuli dituzte.



6. grafikoa: itzultzaile-moten banaketa

Datu-basean 62 autoitzultzaile jaso ditugu, beraz, ondoriozta dezakegu egile gehiengeok gutxienez liburu bat autoitzuli dutela. Gainera, beste kasu batzuetan ikus daiteke hainbat argitalpen dituzten egileek libururen bat autoitzuli badute, hori izango dela egileen ohiko itzulpen-mota. Hurrengo grafikoa autoitzultzaile oparoenak behatuko ditugu:



7. grafikoa: XXI. mendeko autoitzultzaile oparoenak

Grafiko honetan hiru itzultzaile-mota nagusienak hartu ditugu kontuan. Horren ondorioz, aipatu beharrekoa da Juan Kruz Igerabide eta Patxi Zubizarretak Edicions Bromera itzultzailea duen liburu bana dutela, baina ez direla grafiko honetan agertuko.

Ikus dezakegunez, grafikoan autoitzulpen gehien egin dituzten egileak agertzen dira. Guztiek, Patxi Zubizarretak izan ezik, autoitzulpena dute itzulpen-mota nagusi. Horrez gain, grafikoko hamar egileetatik zazpi XXI. mendean gehien itzuliak izan diren egileak dira ere: Paxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide, Mariasun Landa, Miren Agur Meabe, Aitor Arana, Harkaitz Cano eta Karlos Santisteban.

Juan Kruz Igerabide izan daiteke adibiderik argiena autoitzulpenaren arloan. Igerabide, Zubizarretarekin batera, gehien itzulitako egileetako bat da, eta bi izan ezik, bere itzulpen guztiak autoitzulpenak dira. Lehenengo salbuespena aipatutako Edicions Bromera da, eta bigarrena Patxi Zubizarretarekin batera idatzitako itzulpenaren kolaborazioa, eta beraz, itzulpen honetan parte hartu duela esan dezakegu eta kontuan hartu beharko dugu aurrerago aipatu dugun kolaborazioaren eta autoitzulpenaren harreman estua.

Hala ere, beste adibide batzuetan, egileek itzultzaile alografoak izan dituzte ere. Patxi Zubizarretak, adibidez, bere argitalpenen erdia autoitzuli du, eta gainerakoak beste itzultzaile alografoek eginak dira. Harkaitz Canoren kasuan, autoitzulpenez gain, bi liburuetako itzulpenak kolaborazioa izan dira eta beste biak itzultzaile alografoek egin dituzte. Hala ere, kolaborazioetako batean, *Circo de invierno* liburuan, Jon Alonso Fourcadek ipuin bat soilik itzuli zuen, eta gainerakoak Canok. Horrez gain, datu-baseek Canoren *Twist* liburua Gerardo Markuletak itzuli zuela diote. Egileak elkarrizketa batean esan zuen liburua itzultzeko eginkizuna Gerardo Markuletari eman ziola, ez baitzuen istorioan berriro barneratzeko indarririk, baina ondoren, itzulpen prozesuan parte hartu zuela eta liburuko parte batzuk berak itzuli zituela dio (Rivas, 2013). Beraz, aztergai dugun konbinazioan, itzultzaile alografoaren eta autoitzulpenaren artean muga lausoa dagoela esan daiteke, egileek, nahiz eta liburua ofizialki ez itzuli, maiz hartzen dutelako parte itzulpen prozesuan eta liburuaren zati batzuk itzultzen dituztelako.

Beste batzuetan, idazleak itzultzaileak izan ohi dira, euskaratik gaztelaniara itzultzen dute, baina ez dute beraien liburua autoitzultzen. Jon Alonso Fourcadek, adibidez, zenbait itzulpenetan parte hartu du, lehen ikusitako *Circo de invierno* liburuan eta *Las maletas perdidas* liburuan, baina berak idatzitako liburua, *El eslabón perdido*, Ángela

Guruzagak itzuli du. Uxue Alberdik literatura itzuli du ere, baina euskarara gehienbat, izan ere, bere liburuaren itzulpena, *El juego de las sillas*, Miren Agur Meabek egin zuen. Eizieko Elearazi itzulpen blogak Uxue Alberdirekin egindako elkarrizketan autoitzulpenak ez egitearen zergatiari buruz galdetu zioten, eta honako hau izan zen erantzuna:

Nirea elebitasun praktikoa da, ez literarioa eta gaztelaniaz asko irakurri eta irakurtzen dudan arren, euskaraz bizi naiz eta euskarazkoa da nire jarioa, finean, nire hizkuntza da. Gaztelanatik euskarara itzultzen oso eroso sentitzen naiz baina ez naiz gai ikusten alderantzizkoa egiteko (Alberdi, 2012).

Anjel Lertxundik antzeko iritzia du, honako hau da bere jarrera:

Beraz, nire bizitza osoa eman baldin badut estilo jakin hori lantzen hizkuntza jakin batean, zertan hasi behar dut neure libururen bat itzultzen, aurrez baldin badakit guztiz neutralizatuta geldituko zaidala nik nahi nukeen estilo hori (Egia, 1999).

Horrez gain, autoitzultzaileak fideltasunaren auziarekin daude lotuak, hau da, 2017ko abenduan Tralima/Itzulik ikerketa taldeak antolatutako autoitzulpenaren jardunaldian aipatu zen autoitzultzaileek askotan editore bezala jokatzeko dutela, esaterako, paragrafoak kendu edo gehitu egiten dituztelako. Horren harira, jardunaldi berean, liburuak autoitzultzean batzuetan autozentsuratu egiten direla aipatu zuten. Horren ondorioz, itzultzaile alografoak askotan liburuari fidelagoak direla esan daiteke; izan ere, autoitzultzaileek liburuaren nolabaiteko berridazketa egiten dutela esan ohi dute (Arrula 2017).

Autoitzulpen gehienak haur eta gazte narratiba arloan egin dira. Guztira, 158 autoitzulpen egin dira mende honetan zehar: horietako 88 izenburu haur eta gazte narratiba dira, eta 70 helduentzako narratiba. Gainera, zazpigarren grafikoko egile gehienek haur eta gazte narratiba autoitzuli dute, nahiz eta ikuspegi orokor batean argitalpen gehienak helduentzako narratiba diren. Salbuespenak Harkaitz Cano, Unai Elorriaga eta Eider Rodriguez dira. Lehenengo biek helduentzako lau izenburu eta haur eta gazteentzako bi titulu autoitzuli dituzte, eta Rodriguezen kasuan, aldiz, bere autoitzulpen guztiak helduentzako narratibakoak izan dira. Grafikoan agertzen diren gainerako idazleek, esan bezala, haur eta gazte narratiba autoitzuli dute. Zubizarretaren eta Santistebanen autoitzulpen guztiak haur eta gazte narratiba izan dira, eta azken honek, bere itzulitako obra guztiak autoitzuli ditu. Besteek, Aitor Aranak, Juan Kruz


Igerabidek, Mariasun Landak eta Miren Agur Meabek, zenbait helduentzako narratiba autoitzuli dute, baina gehiengoak haur eta gazteentzako argitalpenak izan dira.

Euskarazko narratibaren gaztelaniarako itzulpenean autoitzulpenak duen nagusitasuna ulertzeko, ezinbestekoa da euskararen egoera soziolinguistikoa aztertzea. Euskara egoera diglosikoan dagoen hizkuntza minorizatu bat da, eta hizkuntza menderatzaile batekin bizi da, gaztelaniarekin (Jaka, 2005). Horren ondorioz, literatura munduan gaztelania hizkuntza zentrala denez (Manterola, 2012), gure sistema literarioa bikoitza da, egileek gaztelaniaz eta euskaraz idatzi dezakete eta euskaraz idazten duten egile elebakarrik ez dago (Manterola, 2012). Beraz, literaturan bi hizkuntzak menderatzen dituztela pentsatzen dute eta gaztelaniara itzultzen dute. Hala ere, autoitzulpenari buruzko jardunaldian aipatu zen idazle batzuentzat ez dela gauza bera bi hizkuntza jakitea eta bi hizkuntzatan idaztea, eta ondorioz, aipatu bezala, zenbait egilek ez dute autoitzulpenik egiten. Autoitzulpenaren fenomeno asko gertatzen da egoera diglosikoan dauden hizkuntzen lurraldeetan. Espainian, adibidez, autoitzulpena ohikoa da ere Katalunian eta Galizian (Manuel Dasilva, 2009).

Hainbat faktorek bultzatzen dezakete egilea autoitzulpena egitera, jardunaldian kanpo-motibazioei eta barne-motibazioei buruz hitz egin zuten idazleek, hau da, arrazoi pertsonalak eta literatura-sistemako arrazoiak, ekonomikoak edo soziolinguistikoak, besteak beste (Arrula, 2017).

### **Argitaletxeak**

Arlo honetan, argitaletxeen bilakaera eta beste zenbait ezaugarri azalduko ditugu. Horretarako, urtez urteko argitaletxeen bilakaera aztertuko dugu lehenik:



8. grafikoa: argitaletxeen bilakaera urtez urte


Grafikoan hiru bilakaera desberdin ikus daitezke, izan ere, aurrerago aipatu bezala, argitaletxeak hiru motatan sailkatu ditugu: Estatuko argitaletxeak, Euskal Herriko argitaletxeak eta Hego Ameriketako argitaletxeak. Azken hauek ez dute bilakaera handirik XXI. mendean, hiru dira soilik argitalpenak, 2010, 2015 eta 2016 urteetan argitaratuak. Lehenengoa Ixiar Rozasen *Invernario* itzulpena da, Mexiko DCko Itaca argitaletxeak kaleratuta, eta beste biak Buenos Aireseko Tren en Movimiento argitaletxeak argitaratuak dira, Asel Luzarragaren *Las sombras de la utopía* eta *La mentira en la sangre*.

Estatuko argitaletxeek gorabehera nabarmenak izan dituzte mendean zehar. Estatuko argitaletxeen kasuan, argi ikusten da argitalpen gehienak lehen hamarkadan plazaratu zituztela eta argitalpen kopuru handiena 2004an izan zela, urte horretan 14 itzulpen argitaratu zituzten guztira. Hala ere, 2010. urtetik aurrera argitalpenak ez dira hain ugariak izan, beherakada handi bat izan baitute, izan ere, 2011tik aurrera argitalpen gehienak ez dira bost baino gehiagokoak izan. Salbuespenak 2013 eta 2017 urteak ditugu, errekupeazio txiki bat izan dutela ikusten baita.


EAEko eta Nafarroako argitaletxeek, aldiz, ez dute patroir jarraitzen. Lehen hamarkadako urteetan gorabehera handiak daude, argitalpen kopuru baxuenak eta handienetarikoak plazaratu baitzituzten; hala ere, igoera bat dagoela nabari dezakegu

2000tik 2010era. Mendeko argitalpen kopuru txikiena, Estatuko argitaletxeetan ez bezala, 2004an izan zen, eta kopuru handiena 2010ean. Urte honetan ageri da hain zuzen ere, barne-produkzioko igoerarik nabarmenena: guztira 20 argitalpen kaleratu zituzten. Edonola ere, kasu bakana da, urte horretan soilik izan dugu inflexio nabarmen hori. Hurrengo urteetan argitalpenak egonkorrak izan dira, baina ez hain oparoak.

Era berean, aztertu ditugun azken bi argitaletxe motak alderatzen baditugu, ondoriozta dezakegu Euskal Herriko argitaletxeak sei aldiz egon direla Estatuko argitaletxeen produkzioaren azpitik eta lehen hamarkadan kanpo-produkzioko argitaletxeek argitaratu zituztela itzulpen gehiago. Hala ere, nahiz eta lehen hamarraldian Estatuko argitaletxeek gehiago argitaratu, bi moten arteko desberdintasuna ez zen oso handia izan. Azken urteotan, aldiz, bertako argitaletxeek plazaratu dituzte argitalpen gehienak, datu-basearen arabera, azken urteetako argitalpenen % 50a baino gehiago kaleratu dute. Estatuko eta Euskal Herriko argitalpenen bilakaera hobeto ulertzeko, hurrengo grafikoak ditugu:



10 .grafikoa: kanpo-produkzioa



9. grafikoa: barne-produkzioa

Ikus daitekeen bezala, datuak zehatzagoak izateko, aztergai ditugun urteak bi bloketan banatu ditugu, hau da, lehenengoa mendeko lehen hamarraldia izango da, eta bigarrena 2011tik 2017ra. Ondorioz, kontuan izan behar da lehen blokean hamaika urte ditugula aztergai, eta bigarreanean zazpi besterik ez.


Ezkerreko irudiak argi erakusten du Estatuko argitaletxeen argitalpenen banaketa. Zortzigarren grafikoan ikusi dugu 2010. urtetik aurrera aipatutako argitaletxeen argitalpenek gainbehera nabarmena izan zutela, eta honako honetan zer nolako



gainbehera izan zuten nabari dezakegu. Izan ere, 133 argitalpen kaleratu dituzte XXI. mendean zehar, eta horien % 84 lehen hamarraldian kaleratu zuten, eta gainerako % 16 2011. eta 2017. urteen artean.

Eskuineko grafikoan, aldiz, Euskal Herriko argitaletxeen banaketa ikus daiteke. Bi blokeetako desberdintasuna ez da estatuko argitaletxeena bezain handia, baina datuek erakusten dute 2011. urtetik aurrera ez direla hainbeste argitalpen kaleratu, baina Estatuko argitaletxeek baino produkzio handiagoa izan dutela.

Edonola ere, bi argitaletxe mota hauen arteko argitalpenen desberdintasuna zehaztasun handiagoarekin ikusteko, jarraian datorren grafikoa dugu eskura:



#### 11. grafikoa: argitaletxeen bilakaera

Lehen hamarraldian Estatuko argitaletxeek plazaratu zituzten argitalpen gehiago, baina desberdintasuna oso txikia da, hain zuzen ere, desberdintasun hori hiru itzulpenetako da. Ehunekoak alderatuko bagenitu, Estatuko argitaletxeek argitalpenen % 51 plazaratu zuten, eta Euskal Herrikoek % 49. Beste blokean, aldiz, bien arteko argitalpenen desberdintasuna nabarmenagoa da. Zortzigarren grafikoak erakusten duen bezala, barne-produkzioko argitaletxeen argitalpenek egonkortasuna mantendu dute, eta Estatuko argitaletxeekin alderatuta, 2011tik aurrera itzulpen osoen % 75 kaleratu dute.

Estatuko argitaletxeek euskaraz sortutako narratiban interesa galdu dutela dirudiela esan daiteke, eta bertakoek, aldiz, interes bera edo gehiago dutela euskaraz sortutako narratiba gaztelaniara itzultzen. Horren harira, Euskal Herriko argitaletxe batzuek

euskara-gaztelania konbinazioko itzulpenak argitaratzera bultzatu dezaketen hainbat bilduma dituzte. Erein argitaletxeak, adibidez, *Uzta Gorria* eta *Cosecha Roja*<sup>9</sup> izeneko bildumak ditu. Lehenengo bilduman, euskaraz sortutako eta euskarara itzultako nobela beltzak argitaratzen dituzte. Bigarrenean, aldiz, gaztelaniazko nobela beltzak argitaratzen dituzte, bai sorkuntzazkoak, bai beste hizkuntzetatik itzultakoak. Bilduma honetan euskaraz sortutako liburuen itzulpenak aurki ditzakegu, hala nola, *19 cámaras*, *612 euros*, *Sombras de la nada*, *Sueños de Tánger* edota *Piel de topo*. Gainera, *Piel de topo* izan ezik, gainerakoak jatorrizkoarekin batera, aldi berean, argitaratu ziren Erein argitaletxean.

Era berean, Ttartalo argitaletxeak *Abra*<sup>10</sup> bilduma du, eta bilduma honetan helduentzako euskal narratibaren gaztelaniarako itzulpenak argitaratzen dira, beraz, bildumak euskal narratiba gaztelaniara itzultzea bultzatzen duela esan daiteke. Horrez gain, euskaratik gaztelaniara itzultzen dutenean, gehienbat Elkar argitaletxean argitaratutako sorkuntza lanak itzultzen dituzte.


### **Testu mota**

Azken arlo honetan testu moten bilakaera begiratu dugu. Hasteko, testu moten urtez urteko bilakaera. Aurrerago aipatu bezala, testu motak bi taldetan banatu ditugu azterketa sakonagoa egin ahal izateko: haur eta gazte narratiba eta helduentzako narratiba. Bada, jarraian dugun grafikoan, bi testu mota hauen urtez urteko bilakaera ikusiko dugu.

---

<sup>9</sup> Cosecha roja bilduma: <http://www.erein.eus/literatura-para-adultos/colecciones/cosecha-roja>

<sup>10</sup> Abra bilduma <http://www.tartalo.eus/eu/narratiba/bilatzailea>




12. grafikoa: testu moten bilakaera urtez urte

Haur eta gazte narratibak nolabaiteko nagusitasuna izan zuen lehen hamarkadan, eta 2004, 2006 eta 2009 urteetan soilik argitaratu zen helduentzako narratiba gehiago. Hala ere, lehen hamarkadako bi testu moten argitalpenen kopurua alderatzen badugu, nahiko gertu daude elkarrengandik. 2010. urtean, aldiz, haur eta gazte narratibak gorakada bat izaten du, eta hamazazpi urteetako argitalpen kopururik handiena duela erakusten du grafikoak.

2010. urtetik aurrera, beheraldi nabarmena gertatzen da eta helduentzako narratibarekin alderatuta, haur eta gazte narratibak oso argitalpen gutxi ditu. Izan ere, bigarren hamarraldiko argitalpenen erdia baino gehiago helduentzako narratiba dira. 2017. urtean gorakada bat atzeman dezakegu haur eta gazte narratiban, eta aurreko urtearekin alderatuta, errekupeazio txiki bat egon dela esan dezakegu, nahiz eta helduentzako narratibak argitalpen gehiago izan urte horretan. Gorakada horrek hala jarraituko duen egiaztatzeko, hurrengo urteetako argitalpenak jaso eta aztertu beharko ditugu.

Orokorrean, haur eta gazte narratibak bilakaera irregularra du mendean zehar, batez ere 2010. urtetik aurrera. Helduentzako narratibak, aldiz, urte jakin batzuetan gorabehera batzuk izan arren, antzeko argitalpen kopuruak izan ditu mendean zehar, eta gorakada txiki bat atzeman daiteke. Hala ere, orokorrean, haur eta gazte narratibak argitalpen osoen % 45 osatzen du, eta helduentzako narratibak, aldiz, % 55, beraz, bi testu moten arteko aldea ez da oso handia.

Testu moten bilakaera hobeto ulertzeko, hamabigarren grafikoa argitaletxeen urtez urteko datuekin alderatu beharko dugu. Datu-basean jasotako datuei esker ikusi dugu Euskal Herriko argitaletxeek presentzia gehiago dutela helduentzako narratiba gaztelaniara itzultzen, eta Estatuko argitaletxeek, aldiz, interes gehiago dutela haur eta gazte narratiba motako itzulpenak argitaratzen. Hurrengo grafikoa argitaletxeen arabera helduentzako narratibaren bilakaera aztertuko dugu:



13. grafikoa: elduentzako narratibaren bilakaera argitaletxeen arabera

Aipatu bezala, Estatuko argitaletxeek izenburu gutxi argitaratu dituzte XXI. mendean zehar, gehienez 6 argitalpen plazaratu zituzten 2004. urtean, baina 2011. urtean, adibidez, ez zuten itzulpenik argitaratu.


Barne-produkzioan beste bilakaera bat ikusten da, bilakaerak gorabehera nabarmenak ditu. Argitalpen gehiago kaleratu dituzte mendean zehar, eta urte batean soilik argitaratu dute Estatuko argitaletxeek baino gutxiago. Euskal Herriko argitaletxeen urterik oparoena 2007a izan zen 11 argitalpenekin.

Argitaletxe askok argitaratu dituzte helduentzako narratibako itzulpenak, eta horietako batzuek helduentzako narratiba soilik argitaratzen dute. Alberdania, adibidez, helduentzako narratiba multzoko itzulpen gehien argitaratu dituen argitaletxea da, mendean zehar 27 argitalpen argitaratu dituzte, eta denak dira helduentzako narratiba. Gainera, Euskal Herriko argitaletxeen urterik oparoenekin zerikusia dutela esan dezakegu, hau da, urterik oparoenean zortzi itzulpen argitaratu zituzten, eta itzulpenak

argitaratzeari utzi ziotenean Euskal Herriko argitaletxeek beherakada nabarmen bat izan zuten helduentzako narratibaren arloan.

Mota honetako narratiba gehien argitaratu duen hurrengo argitaletxea Ttartalo da, 22 itzulpen kaleratu dituzte, horietako denak helduentzako narratiba ere. Ondoren, Erein argitaletxea dugu, 24 argitalpen kaleratu dituzte mende honetan, eta horietako 19 helduentzako narratiba dira. Jarraian, Alfaguarak 12 argitalpen plazaratu ditu, Hiriak 10 eta Seix Barralek 9, azken honek helduentzako narratiba soilik argitaratzen du.

Helduentzako narratibako itzulpen gehienak argitaratu dituzten argitaletxeak ikusten baditugu, ondoriozta daiteke horietako gehienak barne-produkzioko argitaletxeak direla, eta salbuespena Madrileko Alfaguara eta Bartzelonako Seix Barral etxeak direla.



14. grafikoa: haur eta gazte narratibaren bilakaera argitaletxeen arabera

Honako grafiko honek haur eta gazte narratibaren bilakaera erakusten du argitaletxeen arabera. Bi argitaletxe moten argitalpenen bilakaera nahiko irregularra da mendean zehar, baina bien arteko aldea argi ikus daiteke. Alde batetik, Estatuko argitaletxeek itzulpen-kopuru handiena argitaratu zuten 2009. urtera arte, eta geroztik, argitalpenek gainbehera handia izan dute eta itzulpenak eskasak izan dira. 2003an argitalpenen kanpo-produkzioko kopuru handiena dugu eta 2014. eta 2016. urteetan, aldiz, ez zen itzulpenik kaleratu. Beste aldetik, ikuspuntu orokor batean, haur eta gazte narratibak ez du presentzia askorik barne-produkzioan. Hiru urtetan ez zen itzulpenik argitaratu, eta

beste urteetan kopurua ez da oso handia izan. Izan ere, bost alditan soilik argitaratu dituzte Estatuko argitaletxeek baino itzulpen gehiago.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako argitaletxeen argitalpenek gorakada nabarmena izan zuten 2010. urtean, eta aipatu bezala, gainerako urteetan testu mota honek ez ditu argitalpen asko izan Euskal Herriko argitaletxeen eskutik. Gainera, 2010etik aurrera argitalpen kopuruak nabarmen egin du behera, hurrengo urteetan liburu bat edo bi besterik ez dituztelako argitaratu. Ondoren, azken urteetan, errekupeazio txiki bat dagoela dirudi.

